

85. FITXA Ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei emateko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Euskal Autonomia Erkidegoko udalak.

Sarbide-esteka: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1240802/web01-tramite/eu/>

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2024ko azaroaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak emateko dena, ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan \(NextGenerationEU\)](#)

Eremuak: Hezkuntza

Zenbatekoa: 4.207.837 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/31 - SEGIDAKO KONKURRENTZIA -

Laburpena

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udalak diruz laguntzea, **2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean sortutako titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko plaza berrien azpiegitura-gastuak finantzatzeko**, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Deialdi honekin finantza daitezkeen gastuetatik kanpo geratzen dira aurretik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatu diren ikastetxeetako obrei dagozkienak, kontzeptu eta plaza berberengatik.

Plaza berritatzat jotzen dira **2021eko urtarrila baino lehen ez zeuden hiru urtetik beherako haurrentzako eskola-plaza publikoak**, kontuan izanik plaza horiek ezin dituztela inolaz ere ordeztu lehendik zeuden plazak. Laguntza horiek 2021eko urtarriletik aurrera baimendutako eta hezkuntza plaza gisa martxan jarritako plazen gastuetara bideratzen dira, kontuan hartuta obrak 2021eko urtarriletik aurrera amaitu behar direla.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte, **baldin eta, beren eskumenak baliatuz, Haurreskolak Partzuergoak kudeatutako udal haur-eskoletan edo udal titulartasuneko beste edozeinetan egiten badute diruz lagundutako jarduera.**

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak honako hau izango da:

– Azpiegitura: unitate (ikasgela) berriak eraberritzea/birgaitzea, espazioa egokitzeko edo ikasgelak eraikitzeke eraberritzeak/birgaitzeak eta obrak behar dituzten ikastetxeetako eraikinetatik abiatuta; eta haur-eskola berriak eraikitzea.

Gauzatzeko epea

Deialdi honen bidez finantza daitezkeen jarduketek **2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko** exekuzio-epea izango dute.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa **18.000 €-koa** da sortutako plaza berri bakoitzeko, erabilgarri dagoen kreditua agortu arte.

Intereseko beste alderdi batzuk

Segidako konkurrentziaren prozedura erabiliko da dirulaguntza emateko.

Eskaerak modu ordenatuan ebatziko dira, espedienteak erabat osatuta geratzen diren unearen arabera.